

MUSEO
Zumalakarregi
MUSEOA




HEZKUNTZA PROGRAMA



AURKIBIDEA

Aurkezpena	4
Informazio orokorra eta erreserbak	6
Ibilbide didaktikoak	8
1. Museoan zehar bisita gidatua	8
2. Ibilbideak material didaktikoarekin	9
3. Ibilbide bateratuak	11
“Gure ondarea” Tailerra	12
“Feillet Ahizpak” Maleta didaktikoa	13
Elementu osagarriak	14



AURKEZPENA

Zumalakarregi Museoaren hezkuntza jardueren programa aurkezten dizuegu. Eskaintza hau hezkuntza maila desberdinei zuzenduta dago, hain zuzen ere, Lehen Hezkuntza, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntzari.

Proposamen hau eskola kurrikulumaren edukien osagarria izan nahi da eta XIX. mendera hurbiltzeko proposamen ludiko eta hezigarria egiten du, gaur egungo gizartea ulertzeko funtsezkoa dena.

Ibilbide tematiko desberdin hauek kontzeptu, ideia eta balore unibertsalei buruzko haus-narketa egitera gonbidatzen dute, eta aldi berean, garai honen gakoak ulertzen eta pentsa-mendu kritikoa eta deduktiboa garatzen laguntzen dute, edozein garai historiko ulertzeko beharrezkoak direnak.



Helburu orokorrak:

- XIX. mendeko Euskal Herriari buruzko ezaguera eskaintzea.
- XIX. mendeko euskal historiari buruzko zentzumen kritikoa eta hausnarketa bultzatzea.
- Historian barna zeharkako balore unibertsalei buruzko hausnarketa bultzatzea.
- Egungo gizartea ulertu eta berau eragile eraginkor bezala eraikitzeko gakoak eskaini.
- Historia eta ondarearekiko errespetua eta sentsibilizazioa bultzatzea.



INFORMAZIO OROKORRA ETA ERRESERBAK

BISITAREN EZAUGARRIAK:

Taldeak:

Bisita talde bakoitzaren beharretara egokitzen da beti. Museora bisita egiteko, eraikuntzaren ezaugarriak kontuan edukita, talde bakoitzeko gehieneko kopuru gomendagarria 30 pertsonakoa da. Taldea handiagoa bada, hauek bitan banatuko dira antolaketa hobea izateko eta aktibitate paralelo batekin konbinatuko da. Ikasleak arduradun batekin etortzea ezinbestekoa da.

Aurretiko erreserba:

Bisitaren erreserba egiteko ondorengo telefono zenbakira deitu 943 88 99 00 edo email honetara idatzi mzumalakarregi@gipuzkoa.eus. Bisita bertan behera uzteko, mesedez, gutxienez bisita baina egun bat lehenago deitu.

INFORMAZIO PRAKTIKOA:

Museoaren ordutegia:

Martxoak 1 - Urriak 31

- Asteartetik larunbatera eta jai egunak:
10.00-14.00
16.00-19.00
Igandeak:
10.00-14.00

Azaroak 1 - Otsailak 28

- Asteartetik ostiralera eta igandeak:
10.00-14.00
Larunbatak eta jai egunak:
10.00-14.00
16.00-19.00

Tarifa orokorrak:

Zumalakarregi Museoko bisita gidatuen pertsonako tarifa :

- Asteartea-Ostirala: 2,5 €
- Ostegunak: 1 €

Zumalakarregi Museoa eta Igartubeiti Baserri Museoa - Bonu bateratuaren bisita gidatuen pertsonako tarifa:

- Asteartea-ostirala: 5 €
- Ostegunak: 2 €

Doako sarrera + bisita gidatua taldearen arduradunentzat.

Informazio gehiagorako deitu ondorengo zenbakira: 943 88 99 00

Irisgarritasuna:**Helbidea:**

Zumalakarregi Museoa
Muxika egurastikoa 6,
20216 Ormaiztegi

www.zumalakarregimuseoa.eus

Garraio aukerak:

IBILBIDE DIDAKTIKOAK



1. BISITA GIDATUA MUSEORA

- Zumalakarregi anaiak. Jeneral karlista eta politiko liberala

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntzari.

Iraupena: 1 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak: XIX. mendeko Euskal Herriko gakoak ezagutzea eta Zumalakarregi anaien pentsaera desberdinak ulertzea.

Konpetentziak: Pentsaera erlatibista garatzea: perspektiba desberdinak izatea, lantzen diren gaiarekiko dauden pentsaera ideologiko desberdinak ezagutzea.

Deskribapena:

Zumalakarregi anaiak ibilbide gidatuak Antzinako Erregimenetik Liberalismora egon zen trantsizioan zehar ibilaldi bat proposatzen du. Tomasek jasotako sistema defendatu zuen karlismoaren buruzagi militar bezala, Migelek, bitartean, politikari modura, gizarte eta politika sistemen aldaketaren alde borrokatu zuen. Famili bakar batek prozesu honetan aurrez aurre zeuden ideologiak aztertzea ahalbidetzen digu.

2. IBILBIDEAK MATERIAL DIDAKTIKOAREKIN

- Iraultza garaia

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.maila.

Iraupena: 1 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak: Euskal Herriko karlismoa eta liberalismoa ulertzea XIX. mendean zehar.

Konpetentziak: Hiztegi espezifikoa eskuratzea. Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea. Talde lana.

Deskribapena:

Iraultza garaia ibilbideak Antzinako Erregimenetik Sistema Liberalera eman zen trantsizio konplexu eta bortitzean murgiltzeko aukera ematen du. Euskal Herrian karlismoa eta liberalismoaren artean egon zen liskarraren errepaso bat proposatzen du: Bi Gerra Karlistak, liberalen garaipena eta foruen abolizioa, industria iraultza. Gainera, pertsonai desberdinak ezagutzeko aukera ematen du, hala nola, Zumalakarregi Anaiak, Muñagorri, Santa Kruz Apaiza eta Agosti Xaho.

** Ibilbide hau ingelesez ere egin daiteke.*

*** XIX.mendeko Ormaiztegi trenzubiaren bisita gidatuarekin ere konbinatu daiteke.*

- Estatu Liberalaren sorrera

Nori gomendatua: Batxilergoko 2. maila.

Iraupena: 1 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak: Estatu Liberalaren eraikuntza gatazkatsua Euskal Herrian eza-gutzera ematea.

Konpetentziak: Hiztegi espezifikoa eskuratzea. Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea. Talde lana.

Deskribapena:

Ibilbide honekin ikasleak Antzinako Erregimenaren krisiaren eta Estatu Liberalaren eraikuntza gatazkatsua prozesua aztertuko dute. Bi sistemen ezaugarri nagusiak eta Euskal Herriko Kontzertu Ekonomikoaren jatorria ezagutuko dituzte.

*** XIX. mendeko Ormaiztegi trenzubiaren bisita gidatuarekin ere konbinatu daiteke.*

- Gerra eta bakea

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntzari.

Iraupena: 1 ordu.

Helburu espezifikoak: Gerraren ondorioei buruz hausnarketa egitea.

Konpetentziak: Elkarrizketa eta eztabaidaren erabilera. Talde lana.

Deskribapena:

Biolentziaren erro, forma eta ondorioei buruzko hausnarketarako proposamena, gatazkaren eredutzat Lehenengo Karlistada hartuz. Bergarako Hitzarmena gatazka konponketa eta bake prozesuaren eredu.

**Beste edozein ibilbiderekin konbinatu daiteke.*

3. IBILBIDE BATERATUAK

- Iraganean bidaia

Zumalakarregi Museoa - Igartubeiti Baserri Museoa - Bonu bateratua:

Nori gomendatua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntzari.

Iraupena: 2 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak: Euskal Herriko kulturak XVI. mendetik XIX. menderarte izan duen bilakaera ezagutzea.

Konpetentziak: Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea.

Deskribapena:

Bi museo hauen bisita gidatuen bitartez, Euskal Herriko historian XVI. mendetik XIX. menderako ibilbidea egiteko aukera eman nahi da.

- Burdinaren bideak

Zeraineko Meategia, Mirandaolako Burdinola eta Zumalakarregi Museoa

Nori gomendatua: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntzari.

Iraupena: 4 ordu.

Helburu espezifikoak: Burdinaren bidea ezagutzea, erauzte eta manipulaziotik bere erabilera arkitektonikoraino.

Konpetentziak: Hiztegi espezifikoak eskuratzea. Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea.

Deskribapena:

Ibilbidea Zerainen hasten da, XII. mendetik XIX. menderaino inguruko burdinolak hornitu zituen Aizpeako meategian. Hurrengo geltokia Legazpiko Mirandaola parkean kokatzen den burdinola da. Azkenik, Ormaiztegin XIX. mendeko trenzubia, nagusiki burdinez eraikitako monumentua, bisitatuko dugu.

“GURE ONDAREA” TAILERRA



Nori gomendatua: Lehen Hezkuntza eta DBH 1., 2. eta 3. maila.

Iraupena: Tailerraren iraupena ikastetxearekin zehaztu daiteke. Gutxienez ordu eta erdiko saio 1 eta gehienez 3 saio.

Metodologia: Edukiak Ondare Hezkuntzaren bitartez lantzen dira, ondarearen kontzeptua banakakotik abiatuz kolektiboraino ikusten da.

Helburu espezifikoak: Ondarearen esanahira hurbildu eta sentsibilizazioa eta errespetua sortu partaideen gertuko inguruarekiko.

Konpetentziak: Ondare natural eta kulturalerekiko errespetua, eta honen kontserbazioarekiko interesa.

Deskribapena:

Ondarearen esanahia bakoitzaren esperientzia pertsonaletik hasita lantzen da. Gertutasun hori lortzen denean, taldearen ingurunearekin lotura bilatzen saiatzen da, ondareari buruz hausnarketa sakonagoa eginez. Kontzeptu honetan museoaren eginkizuna, bere bilduma, bere ondare historikoa, tresnak eta espazioak, etab. lantzen dira.

** Programa hau hezkuntza maila bakoitzaren beharren arabera lantzen da.*

“FEILLET AHIZPAK” MALETA DIDAKTIKOA



XIX. mendera bidaiatzeko aukera ematen duen eta jolas-jarduerak dituzten erakusketa txikia eta doakoa. Garaiko pinturan aitzindari izan ziren Héléne eta Blanche Feillet ahizpen lanen bitartez XIX. mendeko Euskal Herriaren aurkezpena.

Nori gomendatua: Lehen Hezkuntzatik aurrera.

Helburu espezifikoak: Feillet Ahizpen lanak ezagutzera ematea.

Konpetentziak: Pentsamendu sortzailea garatzea.

Deskribapena:

Maletaren edukia hiru karpetatant banatuta dago:

- 1. Karpeta: 10 ilustrazio. Héléne y Blanche Feilleten lanak.
- 2. Karpeta: garaiko 6 egileen erreprodukzioak.
- 3. Karpeta: Hutsik, egindako lanak sartzeko.
- Artelanak zintzilikatzeko soka eta txintxetak.

Helburu espezifikoak: Feillet ahizpen lanak ezagutaraztea, bi artista aitzindari XIX. mendeko Euskal Herrian.

Oharra:

Maleta didaktikoak doan uzten dira hilabetez. Bidalketa-gastuak eskatzen dituenaren kontu izango dira.



ELEMENTU OSAGARRIAK

Aholkularitza pertsonalizatua

Museora bisita antolatzeko helburuarekin eta ibilbidea ikastetxearen beharrei egokitzeko asmoz, Zumalakarregi Museoak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen die eskatzen duten irakasleei. Gainera, ibilbide bakoitzeko material didaktikoa eta irakasleentzako txostena dauzkagu.

Artxibo digitala

Museoko webgunean, www.zumalakarregimuseoa.eus, XIX. mendeko gai desberdinekin lotuta dauden hainbat ikerketa aurkitu daitezke: erakusketa birtualak, artikulua, ikerketak, soinu artxiboa, etab.



“Leopoldina Rosa: XIX. mendeko migrazioa gaur egun” aldi baterako erakusketaren inguruko ibilbide didaktikoa

Nori gomendatua:

Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako seigarren maila material osagarri espezifikoarekin. Derrigorrezko Bigarren Maila, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntza.

Iraupena:

1 ordu eta 30min.

Helburu espezifikoak:

- Migrazioa gizakiari datxekion elementu moduan aurkeztea.
- Egunerokotasunean eragina duten gizarte fenomenoekiko hausnarketa kritikoa sustatzea.
- Pentsamendu kritikoa eta kontzientzia sustatzea belaunaldi berrien artean, eztabaida sozialetan parte hartzea bultzatzea.

Konpetentziak:

- Enpatia garapena: migratzailearen lekuan ipiniz.
- Gaur egungo migrazioaren fenomenoetako ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Gure inguru hurbileko gizarte-aniztasunari buruzko sentsibilizazioa.

Deskribapena:

LEOPOLDINA ROSA: XIX. mendeko migrazioa gaur egun” erakusketan zehar, migrazio prozesuei buruzko hausnarketa egiteko gunea da ibilbide hau. Gizakiaren historiatik barrena paseo bat proposatzen duen unitate didaktikoa da, euskal migrazioa eta egungo migrazio mugimenduak barne.